

FUNTSEZKO JARDUERAK

Jarduera hauei esker, lortzen dugu gure salerosketa eredia aurrera ateratzea, eta negozio-eruduak funtzionatu.

Gure kasuan, funtsezko jarduera plataforma edo sareko jarduerak dira. Gure proiektua webgune bat izanez gero, inportanteena da aplikazioa hori, hau da plataforma, kudeatu mantendu eta sustatu. Bezeroekin harreman ona izatea eta haien ardura izan ere funtsezkoa da. Azken finean, aplikazioa haiei bideratuta dago, eta asko gustatzen bazaie “premium” bertsioa izan al dute, eta horrela gu mozkinak irabaziko ditugu.

Arazoak konpontzeko jarduera baita ere funtsezkoa da. Aplikazioaren garapenean arazoren bat sortzen bada, edo bezeroekin, jakin behar dugu zer gertatu den, hau da, arazoa aurkitu, arazo hori ikertu eta gero faktore komunak atera, geroago erabakiak hartu al izateko, eta azkenik, aukeratu behar da arazoari irtenbiderik onena, kontuan hartuta gutxieneko kalteak eskaini behar dutela. Nahiz eta produkzio jarduera inportanteena ez izan, gure proiektuan bertan dagoen zerbait da. Aplikazioa garatu behar dugu, orduan sistema operatibo bat egin behar dugu. Hori gure produkzioa izango da, jendea kontratatu behar dugu egin al izateko.

Hau da, balio-proposamena egin behar diren funtsezko jarduerak eta prozesuak ikusiz gero, lehentasuna emango dugu plataforma edo sareko jarduerari, aplikazioa ondo joateko. Baina, bezeroekin funtsezko jarduerak ere izugarri beharrezkoak dira, haiei bideratuta dagoelako.